

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Pediatriako kontsultek haurrenganako tratu ona eta hezte positiboaren estiloak susta ditzaten nahi du Lehen Mailako Arretak

Azken urtean, Pediatriako, Erizaintzako eta Gizarte Laneko 70 profesional baino gehiago trebatu dira Osasun Publikoarekin lankidetzan antolatutako lantegietan.

Ostirala, 2018.eko abuztuak 3

Azken urtean, Lehen Mailako Arretako gerentziak indartu egin du osasun-esparruak haurrenganako tratu ona eman dezan sustatzeko apustua. Horretarako, hezte positiboaren estiloetan trebatzeko lantegiak antolatu ditu pediatria-arretari lotutako profesionalentzat. Ikastaro horien asmoa da profesionaleri tresnak eta ezagutzak ematea heziketa-estilo hori sustatzeko eta artatzen dituzten familien arteko lotura afektibo seguruak eraikitzea sustatzeko.

Trebakuntza-plan horren helburua da jarraibideak ematea haurrak ongi garatu daitezzen sozialki eta afektiboki osasun-arloko esku-hartzeetan. Pediatriako kontsultetan tratu onaren eta hezte positiboaren inguruko aholkuak txertatzearen aldeko apustua egitearen arrazoia da neurozientzian egin berri diren ikerketek baieztatzen dutela lotura dagoela atxikimendu seguruko harremanen eta osasun fisiko, mental eta sozialaren artean. Komunikazioak eta elkarrizketak protagonismo handia duten eta indarkeria fisikorik edo hitzezko indarkeriarik erabiltzen ez den hezte-estiloa sustatu nahi da, zaintzan, errespetuan eta txeran oinarritua.

Nafarroako Lehen Mailako Arretako 39 lantaldetatik datozen Pediatriako, Erizaintzako eta Gizarte Laneko 71 profesionalak parte hartu dute "Haurrenganako tratu ona sustatzea, lotura afektibo segurua eta gurasotasun positiboaren" inguruan azken urtean egin diren lantegietan. Kudeaketa Klinikoari Laguntzeko eta Lehen Mailako Arretako Laguntzaren Jarraitutasunerako Zerbitzuak antolatu ditu lantegiok, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (NOPLOI) lankidetzaz.

Hurrei arreta ematen esperientzia handia duten irakasleek ematen dute lantegia; besteak beste, hauek: M^a José Alvarezek (Mendilloriko osasun-zentroko pediatra), Izaskun Garnicak (Vianako osasun-zentroko Pediatriako erizaina), Rocío Ibáñezek (NOPLOIko Osasuna Sustatzeko Ataleko eta Osasuna Politika Guztieta ataleko gizarte-langilea) eta Rosa De Cruzek (Burlatako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako psikologoa eta udalerrri horretako Hurrei eta Nerabeei Tratu Ona ematea Sustatzeko Sareko kidea). Ikastaro horiek harrera ona ari direnez izaten, datozen hilabeteetan trebakuntza-eskaintza horrekin jarraitzea aurreikusten da.

Osasun Planean jasota dago helburua

Haurren bizitzan lotura afektibo seguruak garatzea sustatzea lehentasunezkoa da osasun-arloko profesionalentzat, Osasunbideren zenbait dokumentu estrategikotan jasoa dagoenez, hala nola [2014-2020ko Osasun Planean](#); zehazki, prebentzioari eta haurren eta nerabeen osasuna sustatzeari buruzko lerroan.

Garapen afektiboa haurren garapen fisiko, kognitibo eta sozialaren oinarritzat jotzen da, eta hori lortzen da haurrek lotura estuenak dituzten pertsoneri esker; horregatik egiten da apustu atxikimendu seguruko loturak sustatzearen alde.

“Gizaki baten buru-osasunerako eta etorkizuneko bizitza emozionalerako faktore erabakigarriren bat hautatu behar balitz, garrantzitsuenetako bat izango litzateke, zalantzarik gabe, nolako atxikimendu afektiboa garatu duen bere haurtzaroko lehenengo urteetan”, adierazi dute ikastaroko irakasleek.

Arrisku-egoerak hautematea

Trebakuntza-plan horren helburua da profesional horiek ezagutza horiek txerta ditzaten beren eguneroko jardunean, eta tratu onerako eta hezte positiborako jarraibideak eman ditzaten, bai haur-osasunerako programak ezartzen dituen aldizkako kontsultetan, bai taldeko eta komunitateko esku-hartzeetan.

“Nahi dugu profesionalek gurasoei edo erreferentziazko zaintzaileei lagundu diezaieten beren seme-alabekin lotura afektiboak ezartzen, eta garaiz hautematen lotura horretako arrisku-adierazleak, arrisku horiei zenbait diziplinatatik ekiteko” adierazi dute lantegien antolatzaileek.

Azaldu dutenez, gaur egun, haurren ongizatea sustatzearen alde lan egiteko, “jakitun izan behar da zeinen lotura estua dagoen aldagai psikologiko eta neurologikoen artean bizitzako lehenengo hilabeteetan, eta zer ondorio dituzten haiek geroko funtzionamendu fisiko, psikologiko eta sozialean”.